ASMOZ TA JAKITEZ
80 urte 1918 1998
EUSKO IKASKUNTZA
1998 otsaila/febrero/février
Nº 76 zenb.

# Reforzando vínculos con la Universidad de Oxford



La firma, en 1996, de un acuerdo de colaboración para el establecimiento de un *Basque Visiting Fellowship* en la Universidad de Oxford vino a enriquecer notablemente la oferta académica de Eusko Ikaskuntza, al tiempo que inauguraba un cordial marco de relaciones entre EI/SEV y la prestigiosa institución.

En este contexto se sitúa, además de la convocatoria, por tercer año consecutivo, del puesto o puestos de profesor visitante en la ciudad inglesa (las candidaturas pueden presentarse hasta el próximo 1 de abril de acuerdo con las bases recogidas en esta misma página), la visita a Euskal Herria que, el próximo mes de marzo, efectuará el director del Instituto de Estudios Europeos de Oxford, Jack Hayward.

Profesor en varias Universidades británicas y francesas, la brillante trayectoria de Hayward combina los aspectos docente e investigador, tal y como queda patente en su extensa bibliografía. *Governing France*, *The State and the Market Economy* y *After de French Revolution* son algunas de sus obras más destacadas. *Elitism, populism an european politics* es el último título editado por este doctor en Ciencias Económicas, también coautor y editor de libros como *De Gaulle to Miterrand* o *Industrial Enterprise and European Integration*. Jack Hayward ofrecerá sendas conferencias en Bilbao y Pamplona, los días 16 y 17 de marzo, respectivamente. En Bilbao, será la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de Sarriko la que acoja la jornada y en Pamplona, la Cámara Navarra de Comercio e Industria.

Bi hitzaldi

*eskainiko ditu Jack Hayward-ek Euskal Herrian.*

## Oxfordeko Unibertsitatean beste irakasle-bisitari baten posturako deialdia

Dagokion egunean Eusko Ikaskuntzaren eta Oxfordeko Unibertsitatearen artean sinatu hitzarmenari jarraiki, haren bidez eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren finatzazioarekin, 1998-99 ikasturteko irakasle-bisitari izateko hautagaia edo hautagaiak zehazteko deialdia egin du EI-k. Oxfordeko Unibertsitateko Aholku Batzorde batek egingo du kandidatuen aukeraketa. Batzorde horrek bai Elkarteko eta bai aipatu akademia erakundeko ordezkariak biltzen ditu, Institute of European Studies eta St. Antony's College izenekoak barne.

Postu honetarako izangaiak prestakuntza handiko pertsonak eta eusko ikaskuntzetan espezializatuak izan beharko dira, zentzurik zabalenean ulerturik, zeren eta ezagupen-espezialitatea Euskal Herriko garapen zientifikoarekin zerikusia duen edozein arlotakoa izan baitaiteke. *Basque Visiting Fellow* honek aldizkako txosten bat aurkeztu egin beharko du bere ikerketen berri emanez.

## Oinarriak (1998-99)

1.- Deialdi honetan Euskal Herriko (Euskal Autonomi Elkartea, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparraldea) zientzia komunitateko edozein kidek -edo komunitate horrekin harreman estua duenak- esku har dezake. Aurrez ez da EIko kidea izan beharrik.

2.- EIk ondoan azaltzen diren lehenespenezko lan-lerroak ezarri ditu 1998-1999 ikasturterako:

a) Gizarte eta kultura etnikoak testuinguru kulturanitz eta mugaz gaindikoetan.
b) Ekonomia eta kultura oinarriak Europako gizarteetan Historiaurrean eta Antzinateko Historian.
c) Industria tradizioko alorretako hirigintzarako berrikuntza estrategiak Euskal Herrian eta Europan.
d) Erakundetze politikoa eta juridikoa Euskal Herria eta Europan.
e) Euskal Herriko eta Europako ingurugiro aniztasuna berpiztea.
f) Ordezkatze batzarrak eta parlamentuak Euskal Herriko eta Europako historian.
g) Genero biografikoa eta prosopografia.

Nolanahi ere, edozein adituk esku har dezake deialdi honetan eta ebazpenean interesgarritasun handieneko proiektua eskainiko duten hautagaiak hartuko dira kontuan.

3.- Oxforden eman beharreko egonaldiak hauek dira: Michaelmas Term (1998ko 10/12tik 12/12ra) , Hillary Term (1999ko 1/18tik 3/15era) eta Trinity Term (1999ko 4/26tik 6/21era).

4.- Hileko ordainketa 400.000 pezetakoa izango da.

5.- Hautagaiak eskabide orriak EIko Bulegoetan har ditzake, bai eta EI-ren Web orrian: http://suse00.su.ehu.es/novedades.htm

6.- Ingelesez idatzi beharreko eskabidea eta txostena aurkezteko epea 1998ko apirilaren 1ean amaitzen da.

ASMOZ TA JAKITEZ INTERNET
http: / /suse00.su.ehu.es
Telefónica

## NOUVEAUX MEMBRES

**Eusko Ikaskuntza.** BULLETIN D'INSCRIPTION

Adhérer à Eusko Ikaskuntza c'est la posibilité de rencontrer les meilleurs moyens pour travailler pour notre culture. Remplir le coupon joint et l'envoyer dans un des bureaux de la Société. Nous rentrerons rapidement en contact avec vous.

Nom.............................Prénom.....................
Adresse.........................Code Postal...............
Ville...........................Téléphone.................

**Eusko Ikaskuntza:** FACULTE PLURIDISCIPLINAIRE. 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA

**Cotisations:** 200 Frs. pour les membres ordinaires. 50 Frs. pour les ...

**Les Sections d'EI-SEV:** anthropologie, arts plastiques, sciences naturelles, sciences économiques, cinématographie, droit, education, folklore, his-toire, langue/littérature, moyens de communication, musique, préhistoire/archéologie, sciences médicales, sciences physiques et mathématiques

## El y el Gobierno Vasco impulsan un proyecto de museo escolar

Si recordar los cambios históricos experimentados en la industria, en la agricultura, en el pastoreo o en la pesca es importante, no lo es menos, a juicio de la Sección de Educación de Eusko Ikaskuntza, enriquecer la memoria de lo que ha sido la escuela, máxime cuando el análisis comparativo constituye en sí un factor de conocimiento y de aliciente para la mejora de la enseñanza. Por ello, la Sección ha dado los primeros pasos para, conjuntamente con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, impulsar la creación de un Museo Escolar Vasco.

Ambas instituciones desarrollarán en los próximos meses lo que hoy es un proyecto, con el propósito de recoger, salvaguardar y poner a disposición del interesado todos los materiales que han significado algo en la historia de la educación desarrollada en Euskal Herria. El interés de la iniciativa va más allá del que pudiera despertar entre investigadores y estudiosos. La idea es ofrecer un producto atractivo para el público en general, especialmente, para las nuevas generaciones, que no han conocido determinados materiales y formas de vida escolar. El museo servirá también para fomentar la formación y la reflexión del propio profesorado.

Se pretende, por otra parte, que el material expuesto se complemente con un fondo documental informatizado, al que pudiera accederse por parte de usuarios de las redes de comunicación disponibles a través de la Mediateka de Eusko Ikaskuntza.

La idea cuenta con algunos antecedentes como proyecto de Eusko Ikaskuntza, que se remontan al Segundo Congreso Mundial Vasco, en cuyo marco varios miembros de la Sociedad prepararon una exposición de material escolar. El futuro museo recogería aquellas realizaciones más significativas y específicas de Euskal Herria, pero sin descartar por ello aspectos que no siendo específicamente vascos, o precisamente porque no lo han sido, constituyen elementos que han condicionado fuertemente las escuelas durante años.




## Egutegia Calendario Agenda

*Días 12, 13, 14 y 15 de marzo, en San Sebastián*
Jornadas sobre el Arte del Renacimiento

Dedicadas a la revisión de la época renacentista, las II Jornadas de Arte Vasco, ofertan un completo programa a todas aquellas personas interesadas en actualizar sus conocimientos sobre este estilo en Euskal Herria, a través de seis ponencias marco, encargadas a destacados profesores universitarios, y un total de 26 comunicaciones, que permitirán a los asistentes conocer los más recientes trabajos de investigación en este ámbito.

En el transcurso de las sesiones, que se desarrollarán en horario de mañana y tarde los días 12, 13, 14 y 15 de marzo, se presentará y distribuirá, además, un cuaderno monográfico con todos los contenidos expuestos y una bibliografía actualizada sobre el periodo de estudio.

El plazo de matriculación en las Jornadas, cuya carga lectiva podrá utilizarse para la obtención de tres créditos acordados por la Comisión de Doctorado del Departamento de Historia del Arte de la Universidad del País Vasco, está abierto hasta el día 28 de febrero.

Esta segunda edición tendrá varios escenarios: el Palacio Miramar de San Sebastián acogerá las ponencias y comunicaciones; la Casa de Cultura Lugaritz, la proyección de películas incluída en el programa; y la villa de Oñati, la visita al conjunto renacentista que los participantes efectuarán el día 15 de marzo como cierre de estos encuentros.

## Asteazkenero solasaldia Vitoria Irratian Elkarteko adituen eskutik

Urtarrilaren 14an ekin zitzaien berriz Vitoria Irratiko solasaldiei, aurtengo bi lehenbiziko saioak “Internet eta hezkuntza” eta “Erromatar garaiko Araba” izenburupean burutu direlarik. Luis Gurrutxaga, Javier Díaz Noci eta Carlos Caballerok esku hartu zuten hasierakoan, eta Eliseo Gil, Idoia Filloy, Aitor Iriarte eta Josemari Vélez de Mendizabalek bigarrenenan.

### Asteazkenero

Asteazkenero dute aukera Arabako entzuleek Eusko Ikaskuntzak prestaturiko irratsaioak entzuteko, FM-ko 104.1 puntuan kokatuz gero gaueko 9.00etan, tenore horretan baitu Eusko Ikaskuntzak bere ordubeteko tartea.

Datozen egunetarako aurrikusirik dauden programetan mota guztietako kontuak jorratuko dira. Otsailaren 18an, Euskal Herria eta musulmanen arteko harremana izango da gai nagusia eta bertan El-ko zenbait bazkidez gain, bi unibertsitari marokoarrek parte hartuko dute. Otsailaren 25erako “I+G Araban” aztergai izango duen saioa prestatzen ari da Elkartea, ondorengo asteetarako “Musika Araban” eta “Araba eta Kuba XIX. Mendean” izenburukoak antolatzen ari den bitartean.

## Le Conseil Permanent de la Société se réunira à Bayonne

Bayonne accueillera le vendredi 27 février, la prochaine réunion du Conseil Exécutif de la Société, ainsi que la session ordinaire de son Conseil Permanent Académique.

Le premier Conseil se réunira à la Mairie de la vile, comme l’année dernière, alors que le second se retrouvera à la Faculté Pluridisciplinaire.

Le Conseil Permanent Académique d’Eusko Ikaskuntza est composé du président de la Société, des vice-présidents, du secrétaire, du vice-secrétaire, du trésorier et du vice-trésorier, ainsi que des présidents des sections scientifiques et des organismes assimilés.

## El-Euskadiko Kutxa IV. Sarirako proposamenak, hilaren 28ra arte

Geroz zabalagoa eta kualifikatuagoa den zientzi komunitate batean aukera daitezkeen guztien artean, ibilerarik gailena burutu duen pertsona hautatzea zaila izan arren, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak konpromezu garrantzitsu hau hartu zuten bere egunean Euskal Herriko ikertzaileekiko, Humanitateak eta Gizarte Zientziak alorreko curriculum nabarmenenari ematen zaion Saria eratzerakoan. Sari hau zientziaren munduan erreferentzia izateko eta hala irauteko xede garbiaz sortu zen; beraz, oraingoko edizio honetan sei Unibertsitatetako errektoregoen ordezkariek eta ospe oneko zenbait adituk osatuko dute lehiaketaren epaimahaia, laugarren ageraldi honetan ere hiru milioi pezetako kopuruaz hornitua egongo delarik.

### Bikaintasuna

Sari honen erakunde sortzaileek bikaintasunaren balioa sustatu nahi dute ikertzaileengan, bai modus operandi bai eta ondorioei dagokienez.

Otsailaren 28an amaitzen da proposamenak hartzeko epea. Gero, unibertsitateetako ordezkariek (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustukoa, Nafarroako Unibertsitatea, Pabe eta Adour Herrialdeetakoa, eta Mondragón Unibertsitatea), zientzia ebaluaziorako aditu batek, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrean dauden erakundeetako ordezkari batek, Euskadiko Kutxako zuzenari nagusiak eta El-ko lehendakariak, hautagaien perfila balioztatzeko ardura izango dute, hautagai horiek beren obra orokorraren bidez Euskal Herriko zientzia garapena modu eraginkorrez sustatu dutenetarikoak izan behar dutelarik beti ere.

### Proposamenak

Proposamenak Eusko Ikaskuntzaren Bulego Nagusietara (Miramar Jauregia. 20007 Donostia) bidal daitezke. El-ren edozein lurralde Bulegotan eska daitezke hautagaiaren merituak eta haren curriculum vitaea aurkezteko, proposatzaileak bete beharreko inprimakiak. Epaimahaiaren erabakia Udaberri aldera jakingo da.

# El antropólogo William A. Christian, en las Jornadas sobre religión y símbolo

Pamplona será la sede de las Jornadas sobre Antropología, Religión y Símbolo, organizadas por Eusko Ikaskuntza y previstas para los días 24 y 25 del próximo mes de abril. El programa contará con la participación de William A. Christian, experto en cuestiones relacionadas con la religiosidad y autor de una extensa bibliografía. Entre los libros que ha publicado cabe destacar “Las visiones de Ezkioga. La Segunda República y el Reino de Cristo” y puede citarse también la obra “De los santos a María: Panorama de las devociones a santuarios españoles desde el principio de la Edad Media hasta nuestros días”, así como los trabajos ”Religiosidad popular: Estudio antropológico de un valle español”, “Apariciones en Castilla y Cataluña”, “Religiosidad local en la España de Felipe II” o “Moving Crucifixes in Modern Spain”. Terminado el plazo de recepción de comunicaciones, permanece abierto el de inscripción en las Jornadas.

Christian

*“Las visiones de Ezkioga” liburuaren egilea dugu. Beheko argazkia obra horretatik ateratakoa da.*



# Les membres présentent 12 projets pour l’obtention de bourses en Iparralde

Le délai de présentation des propositions écoulé, on compte au nombre de douze les projets présentés par les membres d’Eusko Ikaskuntza pour l’obtention de bourses d’aide à la recherche que la Société d’Etudes Basques attribue en Iparralde.

Un comité de sélection examinera toutes les idées dans le courant du mois et procèdera à la répartition du montant total établi pour l’adjudication des bourses, qui s’èlève cette année à 100 000 francs.

Les membres qui ont sollicité une aide appartiennent aux sections d’Histoire et Géographie, Langue et Littérature, Droit et Sciences Economiques et Sociales, de sorte que les responsables de l’évaluation des projets devront se prononcer sur des sujets aussi divers que le droit à la famille, les pastorales, le développement transfrontalier des entreprises ou le mouvement nationaliste, entre autres choses.



# Beka berria Altsasuko Udalarekin Sakanako folklorea ikertzeko

Urtero berrikusten ditu Elkarteak Udalekin sinaturiko hitzarmenak, ahalik eta emankorragoak izan daitezen eta, beti ere, izenpetzerakoan une haietarako ezarritako ekimen zehatzetan geldi ez daitezen. 1995ean eman zitzaion hasiera Eusko Ikaskuntza eta Altsasuko Udalaren arteko elkarlanari, igarotako denboran hainbat ekimen burutu direla, eta elkarlan horren ondorio dugu orain bi erakundeek eskaintzen duten beka.

500.000 pezetako dirulaguntzaz horniturik, Sakanako folklorearen inguruko ikerketa bat burutzea du helburu. Lana Eusko Ikaskuntzaren zientzia ikuskapenaz eta Altsasuko Kultura Batzordearekin koordinazioan egingo da,. eta autoreak sei hilabetetako epea izango du, gutxienez 250 orritako luzera izan beharko duen azterlana burutzeko. Eskaerak aurkezteko tartea martxoaren 15eraino izango da irekirik. Eskabidearekin batera proiektuaren plana eta eskatzaile edo eskatzaileen curriculum vitae aurkeztu beharra dago, hartarako ezarririko orrien bitartez. Dokumentazioa bai Altsasuko Udalean bai Eusko Ikaskuntzako Bulegoetan utz daiteke.

### Hautagaien baldintzak

Eusko Ikaskuntzako bazkideek eta Altsasun erroldaturiko pertsonek lehentasuna izango dute. Hautagaiak bakarka edo talde bat osatuz aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat lanaren arduradun gisa azalduko da eta gutxienez haietariko %50ak EI-ko bazkideak edo/eta Altsasun erroldatuak izango dira.

Elkarteak eta Udalak lehiaketaz erabaki beharko duen epaimahaia eratuko dute deialdi honetaz erabakitzeko.

## Becas-1998

Beca de investigación "Angel de Apraiz"

Creada por Eusko Ikaskuntza, en homenaje a su primer secretario general, con objeto de fomentar la investigación en el campo de las Ciencias Humanas, la beca está destinada únicamente a miembros de la Sociedad. El plazo para presentar la documentación (memoria del tra bajo y curriculum en impresos normalizados disponibles en todas las Oficinas de la SEV), que deberá depositarse en las Oficinas Generales de Eusko Ikaskuntza, termina el día 28 de febrero (no se admitirán las entregadas el mismo día en Correos). El trabajo propuesto tendrá una duración máxima de un año y su dotación económica ascenderá a 750.000 pesetas. La convocatoria de 1998 está dedicada a las áreas de Artes Plásticas y Monumentales; Cinematografía; y Música.

Beca de investigación "Agustín Zumalabe"

Con unas condiciones similares a la "Angel de Apraiz" en cuanto a la dotación económica, duración de la beca y características de los aspirantes, el objeto de investigación para 1998 se circunscribe a las áreas de Antropología-Etnografía; Ciencias Físico-Químicas y Matemáticas; Ciencias Médicas; Ciencias Sociales y Económicas; y Folklore. Los interesados pueden remitir, antes del 28 de febrero, su curriculum y la memoria del trabajo a las Oficinas Generales de EI/SEV (Palacio de Miramar. Paseo de Miraconcha, 48. 20007 Donostia).




**Bilbo Musika-hiria.** *Oso emaitza onak izan dituztela diote bai eskuhartzaileek bai Eusko Ikaskuntzako antolatzaileek urtarrilaren 28 eta 30aren artean buruturiko “Bilbo: 700 urteren bidean” simposiumaren hirugarren ekitaldiaz iritzi bat ematerakoan. Bidebarrieta Urtekarian argitaratuko dira, bertan esku hartu zuten goi mailako adituen txostenak. Argazkian, Gorka Martínez, Anton Erkoreka, Josu Ortuondo, Joseba Inchaurraga eta Joseba Agirreazkuenaga sarrera ekitaldian.*

# El teletrabajo en Euskadi y Cataluña



Alba Caballé

*Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek sorturiko beka baten bitartez ari da lantzen bere ikerketa.*

En el marco del convenio de colaboración entre Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans, se está llevando a cabo un estudio sobre la situación actual de la implantación del teletrabajo en Euskadi y Cataluña.

Así pues, con la finalidad de que ambas comunidades se beneficien de sus respectivas experiencias en este ámbito, el objetivo principal del trabajo es conocer las iniciativas públicas y privadas de difusión y formación en relación con el teletrabajo y los teletrabajadores, el grado de coordinación en este ámbito y los efectos de los proyectos que se han llevado a cabo en las dos comunidades entre el potencial de teletrabajadores, así como conocer la valoración y el provecho de dichas iniciativas por parte de éstos

## Mejor gestión

No cabe duda de que un mayor conocimiento de la realidad del teletrabajo desde esta perspectiva es necesario para la reformulación de sus objetivos y para una mejor planificación y gestión de aquél. Se ha contactado ya con diversos agentes relacionados con la difusión, la promoción y la gestión de esta fórmula (tanto privados como públicos, y de carácter tanto regional como comarcal), así como con teletrabajadores de las dos comunidades autónomas.

El proyecto se encuentra en la fase de contraste de las experiencias, opiniones y actitudes de la administración y de los teletrabajadores, y de comparación de la diferente situación que se vive al respecto en Cataluña y Euskadi.

Sin embargo, aun habiendo recopilado un volumen de información que permite conocer la realidad en esta nueva realidad en las dos zonas geográficas, somos conscientes de la posibilidad de que haya iniciativas y experiencias de las que quizás no hayamos podido recopilar datos.

*Es necesario un mayor conocimiento de la realidad del teletrabajo para la reformulación de sus objetivos y para una mejor gestión en este ámbito*

Por lo tanto, aprovecho estas páginas para pedir y animar a aquellas personas o entidades con las que no nos hayamos puesto en contacto todavía y que tengan alguna iniciativa o experiencia en este sentido (por pequeña que sea y aunque esté en fase de proyecto o anteproyecto) a que se pongan en contacto con nosotros, con el fin de que el estudio sea lo más representativo, y pueda aportar una visión y análisis de la situación lo más completa posible.

Por nuestra parte, esperamos que a principios del próximo mes de marzo podamos ya difundir los resultados de esta investigación para, desde Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans, colaborar, asimismo, en la difusión y la promoción, y una mejor gestión de este sitema de trabajo.

## EI-ko kideen liburuak

**"Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian". Josu Chueca eta Luis Fernández.**

Gerra hasieraren urteurrenean, erreportaia sorta bat argitaratzen hasi zen Euskaldunon Egunkaria gatazka gogoratzeko. Gertaera nagusien urtemugekin bat eginez prestaturiko kapituluak biltzen ditu orain Chuecak eta Fernandezek plazaratzen duten liburuak, epilogo gisako bi atal gehitu zaielarik. Gerra bizi izan zuten euskal hiritarren lekukotasunak -gaurko 80 urteko aiton-amonen hitzak, orduan 20 urte zeuzkaten gazteenak- biltzetik dator ehin handi batean obraren erakargarritasuna.




**"Jon Mirande orhoituz (1925-1972)". Patri Urkizu (koord.).**

Mende laurdena Jon Miranderen heriotzaz geroztik iragana zelarik eta horixe oroitu nahiz, euskal paristar idazlearen obraren inguruan zenbait literatur kritikari biltzea eta testu hautatu batzuk aurkeztea eskatu ziotenean, "sentimendu gazi-gezak eta ohiko kezkak" sortu zitzaizkion Urkizuri, liburuaren sarreran aitortzen duenez. Baina, desafioari aurre egitea eta, beharrezko denean gaitz eta onargarri ez dena salatuz, gauzak diren-direnean agertzen ahalegintzea erabaki zuen, liburu hau dugula esfortzu horren ondorio.




SCIENCE

# Journée à Vitoria sur la paléobiologie des premières populations

Organisée par la Section Préhistoire-Archéologie d'Eusko Ikaskuntza, Vitoria a accueilli le 17 janvier dernier une journée sur la paléobiologie des premières populations, à la charge du scientifique Juan Luis Arsuaga, chercheur à l'Université Complutense, membre de l'équipe interdisciplinaire d'Atapuerca.

Le programme s'est déroulé au Siège d'EI/SEB et a été présenté par le vice-président d'Alava de la Société, Manuel María de Uriarte. Les participants ont traité des sujets concernant la méthodologie, avant d'aborder la casuistique générale et particulière.

Le gisement d'Atapuerca s'est converti, après près de vingt ans d'activité, en un lieu de référence obligée pour la préhistoire européenne et l'étude de l'évolution humaine. Dans les montagnes d'Atapuerca, plus de vingt campagnes de fouilles ont été réalisées, et elles concernent tout le Moyen Pleistocène.

Les étapes de ce processus ont débuté dans les années 70 et, aujourd'hui, l'équipe dont fait partie Juan Luis Arsuaga, qui a récemment reçu le Prix Príncipe de Asturias de la Recherche, est composée de trente permanents de l'Université Rovira et Virgili, de l'Université Complutense et du Musée de Sciences Naturelles, ainsi que de collaborateurs temporaires.



ASMOZ TA JAKITEZ

**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia. Internet: http://suse00.su.ehu.es. **Zuzendaria:** Josemari Velez de Mendizabal. **Zuzendari teknikoa:** Marta Guruziaga Reparaz. **Lege gordailua:** SS-1056/92. ISSN: 1133-9861. **Inprimategia:** Gertu (Oñati. Gipuzkoa). **Harpidetzak:** *Asmoz ta Jakitez* etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia (Gipuzkoa).Tlfnoa. (943) 310855. Faxa: (943) 213956. E-mail: eisev@sk.ehu.es Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Arabako Bulegoa:** San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tlfnoa.: (945) 231552. Faxa: (945) 148752. Ordutegia: 11.00-14.00. **Bizkaiko Bulegoa:** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Tlfnoa.: (94) 4425287. Faxa: (94) 4414650. Ordutegia: 10.00-14.00. **Nafarroako Bulegoa:** Garcia Castañon, 2-6.ezk. 31002 Iruñea. Tlfnoa.: (948) 222105. Faxa: (948) 211737. Ordutegia: 9.00-14.00/ 16.00-19.00. **Iparraldeko Bulegoa:** Baionako Sailaskotako Fakultatea. Tlfnoa. 07. 33.559529299. Faxa. 07.33.559310518. Ordutegia: 9.00-12.00.